

egiten asi zan, baña Mikel'ak une bertan buraba zapaldu eutsan, eta Todosi'ri *katiak* edo estuntzeak ausita luftera jausi yakoan Eta Mikel Gongotzon deimak, begikatutian, bere iruditxu polita itxi eutsan, Todosi'ri. Iruditxu eri orain agurrituten dogunaren baraban dago.

Todosi'k agerpen gelgari onen barija enzkotarai jakin-erazo eutsenetik Aralaf'era biguritu dabex enzkotaf'usti

jok euren begijak, Mikel'i deyez, euren gaitz eta biar-ixan gustijetan bere laguntza eskatuzkero biar-daben gustija ja-detsiko dabela irsarorik.

Eta jakina da Mikel eri latera eruanezkero, beintzat, an-go biar-ixana estalduta geratzen dala.

¡Zaindu, afen, Mikel Gongotzon matia, beti Euzko-Erija!
Kalpa'egi.



Bizka'i'ko G. Elexaberi'ko Deun-Mikel-basatxouua (ermita)

¡Ene mendi maiñiak!

Uriko zaratakin txit nekatur
nua gentza-billa, mendiyen gora,
burua oldozmenex beterikan,
bakañdadian nere gogoa,
biyotza itzal... ez dakidala
zergatik orela dagon gaxua,
banan daramat itzaropena
mendiyen poza arkitzekoa.

Poliki-poliki nua gora...eta gora...
¿zer dute ikusten nere begiyak?
alde guziyetan alaitasuna
¡ain dira ederak gure mendiyak!

Takian-takian arkitzen ditut
hasetxe zaf mañtagariyak:
beretan jayo eta il ziran
gure asaba gurgarariyak.
Zuaitz lirain, baita makufak,
abaf zabal eta batudunak,
an eta emen lugintzako sail,
iri-bafezka zelayak,
erekatxo, ituti garbi
mendiafen onagariyak.
Goyan basoak, beyan uriyak,
ufutira itxaso zabala,
idurituaz zeraurekin
maitaro alkañtua dagola.
Txoriakin batera abesten
mendiko alaba poliña.

giz-eme sendoak lauan eta
aitona atadian eserita.
Begiyak dira leyoak; arekin
begiratutzen du goguak;
beronek biotzari esaten diyo
bertatik zer ikusten duan;
ofela, mendiko edelatasuna ikustian
bidez poztu ta zoriontzen zait
baita ere biotz gaxua,
ba onen aginduz berealaxen
mintzatzen da nere abua.
¡Aguf, Euzkadi'ko mendi ederak,
nere aberiko luf maiñiak,
Jaun-goikua'k maitaro egñiak
ludiyen berdiñik gabiak!
Zubentafen odol garbiya
daramate zain nereak,
augatik pozez beterik Jauna'ri
ematen dizkiyot eskañ ugariak.

Tene.

MUZKI TA MALABI'ARA

Deun-Jon'az zoritxafez galdubaz duan ekanduba zan
Durang'o'n: leyo, sapalluak ereñotz-abañakaz janztia, batzuk
abarok kerezaz apainduten ebezala. Gauñ be banaka ikusi
oi da, baña gitxi; erdeltzalekerijak asabaen ofura ederak
be igesí dauz.

Leyo, sapalluetarako, zeyan salgai egozan ereñotzetatik
bein bat Mallabi'taf bati ostu egin eutsoen. Lapufa ezautu
gurarik, ereñotzori ondo okaintzeko (*kobretako*) asmoz.